

## **IZANAK**

Uxue Perez Mujika

*Beasain*

### **Mugan**

Onomatopeiak dirauen bitartean,  
aurrera.

Pii

Marrak mendi malkartsuak  
ditu marrazten.

Pii

Bizitzaren eta heriotzaren arteko  
sokan dabil trapezista  
oreka mantendu nahian.

Pii

Aspaldi gaiztotu zen  
itsasoan zehar dabil  
itxaropenaren itsasontzia  
olatuek eraman ez dezaten borrokan.

Pii

Marrak gora,  
taupada bat;  
odola gorputz guztian zehar.

Bihotzak sistole.  
Bihotzak diastole.

Taupada bakoitzaren erritmoarekin,  
aintzanedantzan herioa.

Pii

Oroitzapenik burura?  
Bat ere ez.  
Irudia  
labainkor.  
Zine zaharretan  
kredituen ondoren  
txaloak aspaldi isildu direnean  
agertzen den irudia:  
grisa.  
Pii

Mendiak lau  
Pii  
Trapezistaren estropezua  
Pii  
Itsasontziaren naufragioa  
Pii  
Jada ez da ez sistole  
ezta diastolerik.

Zineko pantailan,  
letra larriz  
ondo ikus dadin

**“THE END”**  
**Piiiiiiiiiiiiiii**

### **Ilbehera**

Azal zuriko dama  
dantzalekuan agertu da  
lotsaz gordea aurpegia.

Iluntasunak irentsi du dena;  
isiltasunak antzokiko izkina txikiena ere berenganatu  
du.

Ikuslez lepo antzokia.

~Nocturne op.9 no.2~

Hatzez zuri-beltzak koloreztatu nahian dabil  
musikaria.

Melodiaz,  
ikusleak loturik.

Begiak,  
protagonistarengan iltzatuta.

Dama,  
dantzan.

Ikusleen begiak  
dir-dir  
antzokia  
dardaraz  
handitasun horren ikaraz  
baina,  
hari so giltzapeturik.  
Argia dario gure damari  
argia,  
ikusleen begietan islaturik.  
Musikariak pianoari igorritako laztanak eten ditu.  
Badoa, txalo artean.

Argitasun itsugarri batek begiak bortizki itxi  
dizkigu;  
Ihes egin du magiak,  
ihes damak.

Heriotzaren distira agurtuz  
eguzkiari lotsati ihesi.

### **Dokumentu izengabea**

Izengabeak ainguren moduan Mediterraneoan  
hondoratzen ari direnak ere;  
Izengabeak izendunek sortutako gduetatik ihesi.  
Ireki nahi ez dituzten mugen ondorioz,  
pilatuta, inurritegietan.  
Lesbos, Libano, Za'atari

Izengabeak gosez hiltzen ari direnak,  
izendunek aberastasun jori.  
Izengabeak minetan koltan bila  
dabiltzan haurrak.  
Izenak ugari: Iphone, Samsung, Xiaomi...  
Izengabeak izendunon arropak egiten dituzten  
esku txiki zimurtuak.  
Adidas, Zara, Armani...  
Izengabeak maitatzeagatik erailak.  
Izengabeak bortxatutako emakumeak, jazarriak,  
prostitutak.  
Izengabeak.

Izenak bizkarrean dakar izana,  
ez ordea, kontzientziak eragindako zama.

Izengabeen izana, noizko haien izenetan?